

Año LXXXIII. urtea

282 - 2022

Enero-abril

Urtarrila-apirila



Príncipe de Viana

SEPARATA

Nafar literaturak 2021ean
zer ekarri duen euskaraz

Ángel ERRO JIMÉNEZ

Sumario / Aurkibidea

Príncipe de Viana

Año LXXXIII · n.º 282 · enero-abril de 2022
LXXXIII. urtea · 282. zk. · 2022ko urtarrila-apirila

ÁNGEL EN EL RECUERDO. Homenaje al padre Ángel Martínez Baigorri, S. J. en el 50 aniversario de su fallecimiento (1971-2021) / ÁNGEL OROIMENEAN. Aita Ángel Martínez Baigorri S. J. hil zeneko 50. urteurrenean (1971-2021) Carlos Mata Induráin (coord./koord.)	
Presentación / Aurkezpena Carlos Mata Induráin	9
Evocaciones –antiguas y modernas– del padre Ángel Martínez Baigorri, S. J. Aita Ángel Martínez Baigorri S. J.ri buruzko oroitzapenak –zaharrak eta berriak–	21
Presencia de la poesía de Ángel Martínez Baigorri en la historia literaria de Navarra desde 1970 Consuelo Allué Villanueva	69
Ignacio Ellacuría y Ángel Martínez en diálogo epistolar José Argüello Lacayo	87
Una aproximación al poemario <i>Ángel en el País del Águila</i> (1954) de Ángel Martínez Baigorri: génesis, estructura y temas Carlos Mata Induráin	107
El fondo documental del padre Ángel Martínez Baigorri en el Archivo Contemporáneo de Navarra M.ª Teresa Sola Landa	147
LOS TRABAJOS Y LOS DÍAS DEL AÑO 2021 / 2021eko LANAK ETA EGUNAK	
Tesis doctorales sobre temática navarra de ciencias humanas, sociales y jurídicas, leídas en 2021 (Según la Base de datos Teseo del Ministerio de Educación)	169

Sumario / Aurkibidea

Nafar literaturak 2021ean zer ekarri duen euskaraz Ángel Erro Jiménez	173
Autores navarros en castellano, año 2021 Mikel Zuza Viniegra	177
Una exposición temporal para una colección permanente Mireya Martín Larumbe	181
Con las botas puestas Marga Gutiérrez Díez	189
I Jornadas sobre Videojuegos y Creación Digital en Navarra Ana Herrera Isasi	203
Máster en «Prácticas artísticas y estudios culturales: cuerpo, afectos, territorio». Necesidad y deseo hechos realidad Amaia Arriaga, Nerea de Diego	209
Noticias sobre etnografía, folclore y cultura tradicional en 2021 David Mariezkurrena Iturmendi	217
Discurso Premio Príncipe de Viana 2021 Teresa Catalán Sánchez	223
Teresa Catalán Alicia Ezker Calvo	227
Currículums	243
Analytic Summary	247
Normas para la presentación de originales / Idazlanak aurkezteko arauak / Rules for the submission of originals	249

Nafar literaturak 2021ean zer ekarri duen euskaraz

Ángel Erro Jiménez

Escritor / Idazlea

angerro@yahoo.es

DOI: <https://doi.org/10.35462/pv.282.8>

Amaia Apalauza Ollok (Iruñea, 1979) itzulitako Ursula K. Le Guinen *Oihan hitzean mundua* eleberri laburra argitaratu du Igela argitaletxe iruindarrak, Arrate Hídalgoen aitzinsolasarekin eta Iban Zalduaren gibelsolasarekin. Txalaparta argitaletxean, berriz, Slavenka Drakulic-i itzultzen dion bigarren liburua atera du: *Sekula ez liokete euli bati hegalik kenduko: Gerra-kriminalak auzitan*.

Jon Arretzek (Basauri, 1963) hiru nobela beltz atera ditu aurren, hirurak Erein argitaletxearen eskutik; haietako bi Toure sasi-detektibearen abenturak ekartzen dizkigu: *19 kamera* eta *Dortokaren begirada*; hirugarrena: *Arrutiren banda*.

Aitor Blanco Leozek (Iruñea, 1992) itzulitako Arthur Conan Doyleen *Sherlock Holmesen memoriak* liburua argitaratu du Igelak.

Itxaro Bordak (Oragarre, 1959) *Euri zitalari esker* eleberria, Amaia Ezpeldoi inbestigatzailea protagonista duen laugarrena, atera du Susa argitaletxean; Maiatz argitaletxean, berriz, *Kripton 85* izeneko plazaratu du, istripu nuklear baten inguruko fikzio distopikoa.

Dom Campistronek (Aldude, 1995) *Bekatorosak* izeneko lekukotasun-eleberri grafikoa argitaratu du Elkarren; homofobiaren aurkako aldarria Nafarroa Behereko hainbat herri txikitako zazpi testigantzen bidez.

Koldo Colomo Castro garestarrak *Izenoititegia: Izarbe eta Mañeru ibarretako euskal izenoiak* plazaratu du Pamiela argitaletxean, Nafarroako Gobernuko Euskarabideak euskarari buruzko ikerketa linguistikoari buruzko lehiaketa irabazi duten bi lanetako bat; bestea artikulua honetan aipatzen den J. L. Erdoziaren saiakera da.

Itziar Diez de Ultzurrunek (Iruñea, 1967) itzulitako Hanna Arendt-en *Indarkeriaz* saiakera argitaratu du Katakarak argitaletxeak, Mario Zubiagaren hitzaurrearekin.

Jose Luis Erdozia Mauleonek (Etxarri-Aranatz, 1956) *Lehengo haranez: Nafarroako euskal hizkeretako lexia konposatuak* izeneko saiakera atera du Pamielaren eskutik, Euskarabideak saritutako saiakera.

Hedoi Etxartek (Iruñea, 1986) *Ekialdekoak* poema liburua atera du aurten Susa argitaletxearen eskutik, bere ibilbide poetikoaren hirugarrena eta iragarri duenez, azkenaurrekoa; literatur proiektu honen barruan zenbait eduki ikus-entzunezkoa ere atera du.

Irati Goikoetxeak (Donostia, 1986) *Herriak ez du barkatuko* eman du argitara, Igartza sariari esker, Elkar argitaletxean; egilearen lehen eleberria da, ETAk aita hil zion Oihana protagonista oroitzapen eta oinazearen haria nola askatuko zaion kontatzen da bertan.

Xan Idiartek (Donazarre, 1996) *Teresaren mendekua* ipuin liburua, umorez eta erreferentziez jositako lana, plazaratu du Elkar argitaletxeak Iparraldeko idazleei uzten dien bilduma-txokoan.

Iñaki Irisarrik (Iruñea, 1969), nafar literaturan hasiberria ez den arren, aurten lehen eleberria plazaratu du Elkar argitaletxearekin: *...eta infernuko demonioa adiskide*; Napoleonen tropak Iruñeko zitadelaz jabetu zirenetik hiru urtera kokatutako fikzio historiko eta abenturazkoa.

Ana Jakak (Andoain, 1973) haur literaturako *Marimatrakak* sail dagoeneko luzeko bi ale atera ditu aurten Elkarren: *Mozorro eta kolore festa* eta *Txantxa gutxi*. Berriz Noa eta Lea ahizpa irudimentsuak protagonista.

Irati Jimenezek (Mundaka, 1977) bi liburu argitaratu ditu aurten, biak saiakerak, biak euskal literatura kezka bide dituztenak: alde batetik, *Begiak zabalduko zaizkizue, literaturari buruzko elkarrizketa bat* izeneko Elkar argitaletxean eta, bestetik, *Ogia eta zirkua, Literaturaren zeremonia magikoa Harkaitz Canoren Neguko zirkuan*, Bilboko Udalak antolatzen duen Miguel de Unamuno sariari esker.

Alberto Ladron Aranak (Iruñea, 1967) *Mendekuaren hazia* argitaratu du Elkar argitaletxean, Leire Asiain Foruzaingoko inspektoreak ikertu beharreko beste kasu misteriozko bat, genero honetan ongi trebatutako egile batean eskutik.

Hasier Larretxeak (Arraioz, 1982) *Ihes baten lausoa* argitaratu du poesiari eskainita dagoen Balea Zuria argitaletxean, non egilearen ohiko geografia literaria itzultzen baikara.

Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956) itzulitako Elio Vittoriniren *Solasaldia Sizilian* eleberria argitaratu du Igela argitaletxean; italiar faxismoarekiko bere deslilura islatu zuen bertan egile sirakusarrak.

Juanjo Olasagarrek (Arbizu, 1963) *Mamu eratortzeko moduak* atera du aurten Elkar argitaletxean, aurreko urteko Joseba Jaka sorkuntza bekari esker, terrorismoaren iragan kontuak kitatzeko ariketa metaliterario eta fantasmagorikoa.

Fernando Reyk (Iruñea, 1961) itzulitako Irene Vallejoren *Infinitua ibi batean* (*Liburuaren asmakuntza Antzinaroko munduan*) saiakera izen handikoa plazaratu du Pamielak. Halaber, berak itzulitako Natalia Ginzburgen *Familiako lexikoa* ere berrargitaratu du Igelak.

Nora Salbotx Alegriak (Iruñea, 1973) *Askatu edo moztu: Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak* izeneko saiakera atera du Txalapartan.

Xuberoa Salanueva eta Aritz Irigoien Gartxitorena iruindarrek hurrenez hurren idatzi eta ilustratu dute *Pitxin eta Potxon: barrukoa atera eta hor konpon* haur literaturako lana, Denonartean argitaletxearen eskutik.

Raquel Samitier ilustratzaileak (Iruñea, 1982) *Gorka Kaputz eta bere zomorroak* osatu du, Denonartean argitaletxearen eskutik

Bixente Serrano Izkoren (Sarasa, 1948-Iruña, 2020) artikulu bilduma, *Ene iratxoekin solasean* izenpean Pamiela argitaletxean plazaratua, Serrano Izkok berak hil baino lehenago prestatutako sarrerarekin.

Mikel Tabernak (Lesaka, 1957) *Arkanbele kantak* argitaratu du Susa argitaletxean, egilearen aurreko lanen antzeko geografian eta sentsibiltatean mugitzen den poema liburua.

Asisko Urmenetak (Iruñea, 1965) *Sugarren mende* eleberri grafikoa plazaratu du Erroa argitaletxean, denok ezagutzen dugun orain 410 urteko Logroñoeko fede-autoaz haragoko sorgin ehizak aintzat hartzen dituen istorioa.

Fermintxo Zabaltzak (Iruñea, 1974) Leslie Feinbergen bigarren liburua itzuli du Katakarak argitaletxearentzat. Aurtengoa *Borrokalari transgeneroak: Historia eginez, Joan Arc-ekotik Dennis Rodman-enganaino* da.